
PENTEKOSTE
JAIAK 2005
BERGARA
ERGARAKO

# agurra

Heldu dira berriz ere **Pentekoste jaiak** eta, beste urteetan bezalaxe, bergarar guztiok agurtu nahi zaituztet.

Urte osoa pasa dugu gehienok kezka eta ardurapean. Bazter ditzagun arazo guztiak, egun batzuetarako behintzat, eguneroko betebehar eta nahigabeak, eta goza dezagun alaitasunez beteta gure jai hauetaz. Hori da neure desioa!

Aurten, bergarar esanguratsu biren heriotzaren mendeurrenak betetzen dira: Eladio Urdangarin, 75 urte hil zela, eta Julian Gimon, 25 urte hil zela. Bestalde, nahiz eta Bergarako semea ez izan, Fausto Elhuyar famatua jaio zela 250 urte betetzen dira, eta hona ekartzen dugu egin zuenarekin Bergarari eman zion famagatik. Eta horregatik, pertsonaia honen bizitzaren aipamena egin dugu jai-egitarauaren erdiko orrialdeetan.

Nire esker beroena jai batzordeko kideei eta ekintza ezberdinak antolatzen lagundu duten herritar guztiei eskaini diguten laguntzarengatik. Goza dezagun, beraz, bergararrok eta egun horietan guregana hurbilduko direnek, antolatu diren ekintzetan parte hartuz.

Udalaren eta neure izenean, jai zoriontsuak izan ditzazuela opa dizuet, bai bertakoei, bai kanpoan bizi zareten bergararroi, bai bisitatuko gaituzuen guztioi eta arrazoi bat edo beste dela medio, gure artean ezin egona duzuen bergarar guztioi ere bai.

Zuen Alkatea: **Victoriano Gallastegi**

Azalaren egilea: Ion Iraegi Otaegi
Eskuprogramaren maketazio eta inprimaketa lana: Gertu Komunikazio Bide, s.l. Oñati
L.G.: SS-504/05



Como en años anteriores por estas fechas, me dirijo a vosotros para saludaros con motivo de nuestras **fiestas de Pentecostés.**

Sirvan estas fiestas para librarnos, por unos días, de nuestras preocupaciones y entrar en un ambiente festivo, donde primen la tolerancia y la diversión sana.

El año 2005, se cumple el aniversario de dos ilustres hijos de Bergara: 75 años de la muerte de Eladio Urdangarin y 25 de Julián Gimón. Por otra parte, y aún no siendo hijo de Bergara, por la gran importancia que su descubrimiento supuso para la comunidad científica y con ello dando a conocer el nombre de Bergara, se cumple el 250 aniversario del nacimiento de Fausto de Elhuyar; es por ello que en las páginas centrales de este programa de fiestas hacemos una semblanza de los mismos.

Agradecimiento sincero a los miembros de la Comisión por su colaboración y a todos aquellos que tomarán parte en la organización de los diferentes festejos, para que el resto de los bergareses y los que nos quieran visitar, podamos gozar de los mismos.

A todos vosotros, en nombre del Ayuntamiento y mío, tanto a los que lleváis Bergara en el recuerdo allá donde viváis, como a todos los que estos días nos visitáis y a los que por una u otra razón, no podáis estar con nosotros, os deseos unas buenas y felices fiestas.

Vuestro Alcalde: **Victoriano Gallastegi**

## Maiatzak 6, ostirala

**22:30** "COCIDITO MADRILEÑO" antzezlana Bergarako Udal Pilotalekuan, Glu-glu producciones taldearen eskutik.

*Representación de la obra "COCIDITO MADRILEÑO" en el frontón municipal de Bergara, a cargo de Glu-glu producciones.*

## Maiatzak 10, asteartea

**19:00** Luis Alfonso Gámez kazetari zientifikoaren hitzaldia. "Verdad y mentira de los fenómenos paranormales". Ilatargi Astronomia Elkarteak antolatuta, Bergarako Kultura Etxean.

*Charla del periodista científico Luis Alfonso Gámez. "Verdad y mentira de los fenómenos paranormales". Organizado por Ilatargi Astronomia Elkartea, en la casa de Cultura de Bergara.*




"Cocidito madrileño", hainbeste zeresan piztu duen antzezlana, Bergaran ikusiko dugu.

## Maiatzak 12, osteguna

**17:00** Eskola arteko HERRI KIROL JOKOEN APUSTUA: alebin mailako ikasleak (Mariaren Lagundia ikastetxe patioan).
JOLAS HANDIEN TOPAKETA MUNDIALA: benjamin mailako ikasleak (Seminarioko patioan).

*DESAFÍOS DE HERRI KIROLAK: escolares alevines (en el patio de Mariaren Lagundia).*
*VARIEDAD DE JUEGOS GRANDES: escolares benjamines (en el patio del Seminario).*

**19:00** SARIEN ZOZKETA parte hartzaile guztiekin Seminarioko patioan.

*SORTEO DE PREMIOS con todos los participantes en el patio del Seminario.*

**19:00** Aroztegi aretoaren INAUGURAZIO EKITALDIA. Abdon Juaristi Bergarako pintore zenaren lanak ikusgai izango dira ekainaren 12 arte.

*ACTO DE INAUGURACIÓN del Salón Aroztegi. Se expondrán los trabajos del finado pintor bergarés Abdón Juaristi hasta el 12 de junio.*

# Maiatzak 13, ostirala



**Pixpila disko-busekoek saltsa eta piperra ekarriko dute San Martin plazara.**

**20:00** **Jaien hasiera, etxafleroak jaurtitzea eta BITORIANATXOREN JAITSIERAREKIN, San Martin plazan.**

*Inicio de las fiestas, lanzamiento de cohetes y BAJADA DE BITORIANATXO, en la plaza San Martin.*

**Segidan, UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, hiriguneko kaleetan.**

*A continuación, PASACALLE DE LA BANDA MUNICIPAL DE MÚSICA.*

**Udal Musika Bandakoei ELEKTROTUNA taldekoek hartuko diete lekukoa.**

*Tras la actuación de la banda, el grupo ELEKTROTUNA tomará el relevo.*

**Iluntzean Matxiategin BARRAKEN IREKITZEA, eta Bideberrin TXOSNEN IREKITZEA.**

*Al anochecer, APERTURA DE BARRACAS en Matxiategi, y APERTURA DE TXOZNAS en Bideberri.*

**22:30** **KONTZERTUA Bideberrin *Sharon Stoner, Imuntzo eta Beloki, Harrikada* eta *Deskontrol* musika taldeekin.**

*CONCIERTO en Bideberri con los grupos Sharon Stoner, Imuntzo eta Beloki, Harrikada y Deskontrol.*

**23:00** **PIXPILA DISKO BUSAK festa-giroa ekarriko du San Martin plazara. Drag-Queenak, gogoak, DJak... Zatoz herriko plaza diskoteka nola bihurtzen den ikustera!**

*Fiesta en la plaza San Martín con el DISCO BUS PIXPILA: Drag-Queens, gogos, DJs... ¡Ven a ver cómo se convierte la plaza en una discoteca!*

# Maiatzak 14, larunbata



**Montesblancos taldearekin dantza latindarren topagune bihurtuko da San Martin plaza.**

**09:00** **XXV.HAUR ETA GAZTEEN PLASTIKA-SARIKETA, Beart Bergarako Arte elkarteak antolatuta, Bolu kaleko egoitzan. (Bolu 49)**

*XXV CONCURSO DE PLÁSTICA PARA NIÑOS Y JÓVENES. Organizado por la asociación de arte Beart de Bergara. (Bolu 49).*

**10:00** **DIANA**

**Bolutik, Iosu eta Iokin soinu-joleak.**
**Labegaraietatik, Kobok Bergarako gaiteroak.**
**Oxirondotik, Udal Txistulari Banda.**

*DIANA. Desde Bolu, con los trikitilaris Iosu y Iokin; desde Labegaraieta, con los dulzaineros Kobok y desde Oxirondo, con la Banda Municipal de Txistularis.*

**Dianaren ondoren herriko plazan elkartuko dira guztiak, eta Mizpirualdera joango dira.**

*Tras la diana, se unirán todos en la plaza, y se dirigirán a Mizpirualde.*

**11:00 ATLETISMOKO FROGA KONBINATUAK Agorrosingo kirol gunean.**

*PRUEBAS COMBINADAS DE ATLETISMO en Agorrosin.*

**11:30 Herriko elkarteen arteko BAKAILAO-LEHIAKETA San Martin plazan, Lacor-en laguntzarekin eta Iosu eta Iokin trikitilariek alaituta.**

*CONCURSO DE BACALAO entre las diferentes sociedades. Tendrá lugar en la plaza San Martín, con la colaboración de Lacor; todo ello amenizado por los trikitilaris Iosu y Iokin..*

**13:00 Haur eta gazteen plastika-sariketako SARI BANAKETA, Beart Bergarako Arte elkartearen egoitzan (Bolu kalea 49).**

*REPARTO DE PREMIOS del concurso de plástica para niños y jóvenes, en la sede de la asociación artística Beart de Bergara (Bolu 49).*





**Nafarroatik etorritako basajaunek eta sorginek Bergarako umeen lagun egin nahiko dute.**

**16:30 Yarleku taldearen "NUMENAK" HAURRENTZAKO KALE ANTZERKIA San Martin Agirre plazan.**

*TEATRO DE CALLE PARA NIÑOS. Se escenificará la obra "NUMENAK" del grupo Yarleku en la plaza San Martín.*

**17:45 Haurrentzako BONBA JAPONIARRAK San Martin plazan.**

*BOMBAS JAPONESAS para los niños en la plaza San Martín.*

**18:30** **Bergarako ERRALDOI, KILIKI ETA BURUHANDIEN KONPARTSAREN KALE-JIRA, Bergarako Udal Txistulari Bandak eta Kobok Bergarako Gaiteroek lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, Ramon Maria Lili kalea, Ibargarai hiribidea, Fraiskozuri plaza, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin Agirre plaza.**

*PASACALLE DE GIGANTES, KILIKIS Y CABEZUDOS, con la Banda Municipal de Txistularis y el grupo de dulzaineros Kobok.*

*Recorrido: Plaza San Martín, Bidekurutzeta, Ramón María Lili, Ibargarai, plaza Fraiskozuri, paseo Irizar, Barrenkalea y plaza San Martín.*



Eskoziarrek ere ez dituzte Pentekoste jaiak galduko.

**20:30** **MCKENSY'S Clan Band taldekoak Eskoziatik etorriko dira bisitan propio, Bergarako Pentekosteetara. San Martin plazan itxarongo zaituzte.**

*Nos visitará desde Escocia el grupo MCKENSY'S Clan Band, con el que podremos disfrutar en la plaza San Martín.*

**22:30** **KONTZERTUA Bideberrin *Kloakao*, *Vhäldemar*, *Black Sheeps* eta *Obligaciones* taldeekin.**

*CONCIERTO en Bideberri con los grupos Kloakao, Vhäldemar, Black Sheeps y Obligaciones.*

**23:00** **DANTZA LATINOEN PENTEKOSTEETAKO LEHENENGO LEHIAKETA San Martin plazan, eta ondoren DANTZALDIA Montesblancos taldearekin. Eman izena Bergarako Kultura Etxean maiatzaren 6a baino lehen, eta kanporatu dantzarako grina!**

*I. CONCURSO DE BAILES LATINOS DE PENTECOSTÉS en la plaza San Martín. Y, a continuación, BAILABLES con el grupo Montesblancos. Apúntate en la Casa de Cultura antes del 6 de mayo, y demuestra tu ritmo!*

# Maiatzak 15, igandea



Tarantella taldekoek zure dantzarako grina kanporatuko dizute.

08:00 **SOKAMUTURRA San Martin plazan, Elgoibarko dultzaineroek animatuta.**

*SOKAMUTURRA en la plaza San Martín, amenizada por los dulzaineros de Elgoibar.*

**Ondoren ALBORADA Udal Txistulari Bandarekin.**

*ALBORADA con la Banda Municipal de Txistularis.*

10:00 **Euskadiko BANAKAKO XAKE TXAPELKETA Ipintza II institutuan.**

*CAMPEONATO INDIVIDUAL DE AJEDREZ de Euskadi en el instituto Ipintza II.*

10:00 **"LXX.Pentekoste Saria" TXIRRINDULARI LASTERKETA, 23 urtez azpiko txirrindularientzat eta elite mailakoentzat, Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta. Lehendakari txapelketarako puntuagarria. Irteera San Lorentzo auzotik.**

*CARRERA CICLISTA "LXX.Premio Pentecostés", para corredores sub- 23 y de élite, organizada por Lokatza Ziklismo Eskola. Puntuable para el trofeo Lehendakari. Salida desde el barrio San Lorentzo.*

11:00 **MEZA NAGUSIA San Pedro parrokian. Udal korporazioa mezetara joango da, Udal Musika Bandaren eta Udal Txistulari Bandaren laguntzarekin.**

*MISA MAYOR en la parroquia de San Pedro. Asistirá la corporación municipal, y contará con la participación de la Banda Municipal de Bergara y la Banda Municipal de Txistularis.*

12:00 **XXVIII. EUSKADIKO DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA, 15 urtez azpiko bikoteentzat, San Martin plazan, Abarka dantza elkarteak antolatuta. Kanporaketa saioa. Lehenengo 12 bikoteak sailkatuko dira arratsaldeko saiorako. Kutxaren laguntzarekin.**

*XXVIII. CAMPEONATO DE EUSKADI DE BAILE AL SUELTO, para parejas menores de 15 años en la plaza San Martín, organizado por el grupo de danza Abarka. Se clasificarán las primeras 12 parejas para la sesión de la tarde. Con la colaboración de Kutxa.*

12:30 **Udal Musika Bandaren KONTZERTUA Espoloian.**

*CONCIERTO de la Banda Municipal de Música en el Espolón.*

### Egitaraua / *Programa:*

| | | |
|---|---|---|
| Cántame un pasodoble | | C.Cano<br>Arr: A.Gz.Chirlaque |
| La belle Héléne | Obertura | J.Offenbach |
| Euskal Herria kantuz | | A.Gz.Chirlaque |
| Forrest Gump | Soinu banda | A.Silvestri |
| Jericho | Fantasia | B.Appermont |

Zuzendaria / *Director:* Alfredo Gz. Chirlaque



16:00 **HAUR ETA GAZTETXOENTZAKO ESKULAN TAILERRAK Xabier Maria Munibe plazan. Zatoz, eta itxuraldatuta irtengo duzu! Aurpegi margoketa eta ile apaindegia, tatuaia tailerra, argazki digitalaren gunea, globoflexia...**

*Talleres de manualidades para niños y jóvenes en la plaza Xabier María Munibe. Peluquería, tatuajes, fotos digitales, globoflexia...*

16:00 **XAKE AZKARREKO taldekako partiden txapelketa, Ipintza II institutuan.**

*Campeonatos de Euskadi de PÁRTIDAS RÁPIDAS por equipos, en el instituto Ipintza II.*

17:00 **PILOTA PARTIDA PROFESIONAL IKUSGARRIAK Udal pilotalekuan.**

*PARTIDOS DE PELOTA PROFESIONALES en el frontón municipal.*

17:30 **XXVIII.EUSKADIKO DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA, 15 urtez azpiko bikoteentzat, San Martin plazan. Udal Txistulari Bandak eta Trikitilariek lagunduko dute. Kutxaren laguntzarekin.**

*XXVIII. CAMPEONATO DE EUSKADI DE BAILE AL SUELTO, para parejas menores de 15 años en la plaza San Martín, amenizado por la Banda Municipal de Txistularis y por trikitilaris. Con la colaboración de Kutxa.*

19:30 **KATXI BATXE DE CUCHINA publiko osoari, eta batez ere sukaldaritza gustuko dutenei, zuzendutako kale antzerkia Xabier Maria Munibe plazan.**

*En la plaza Xabier María Munibe, representación teatral de KATXI BATXE DE CUCHINA, dirigida a todos los públicos, pero, especialmente, a los que gustan de la gastronomía.*

23:00 **DANTZALDIA San Martin plazan, Tarantella taldearekin.**

*BAILABLES en la plaza San Martín, con el grupo Tarantella.*

# Maiatzak 16, astelehena
# KUADRILEN EGUNA



Mexikoko kantu tradizionalek ere izango dute beren tokia Pentekosteetan Mariachi Garibaldi taldekoekin.

**08:00** **SOKAMUTURRA San Martin plazan eta Barrenkalen, Elgoibarko dultzaineroek eta Incansables txarangak animatuta.**

*SOKAMUTURRA en la plaza San Martín y en Barrenkale, animada por los dulzaineros de Elgoibar y la charanga Incansables.*

**Sokamuturraren ondoren HAMARRETAKOA San Martin plazan. Txorizo pintxoak.**

*HAMARRETAKO en la plaza San Martín. Pintxos de chorizo.*

**Ordu berean KOADRILEN ELKARTZEA San Martin plazan, eta kalejira Xapre eta Zarra eta Josu eta Jokin trikitilariekin.**

*A la misma hora concentración de las cuadrillas en la plaza San Martín, y comenzarán el pasacalle con los trikitilaris Xapre eta Zarra y Josu eta Jokin.*

**10:30** **PLATER TIRAKETA Gorlako Irubide zelaian, Ollagorra taldeak antolatuta.**

*TIRO AL PLATO, en la campa Irubide de Gorla, organizado por Ollagorra.*

**11:30** **MARIACHI GARIBALDI taldearekin DOINU MEXIKARRAK entzun ahal izango dira Bergarako kaleetan. Animatu zaitez Espoloira eramango zaituen KANTU-JIRAN parte hartzera!**

*MÚSICA MEXICANA de la mano de MARIACHI GARIBALDI, por las calles de Bergara. ¡Acompaña a los mariachis hasta el Espolón!*

**12:00** **Koadrilen aurkezpena eta jokoen hasiera San Martin plazan. 16 urtetik 102 urte artekoek parte hartu dezakete. Jokoak:**

- **Txerri harrapatzea**
- **Asto karrera (4 hankadun astoak antolatzaileek ekarriko dituzte. 2 hankadunak koadrilen kontu)**
- **Sokatira**
- **Zaku karrera**
- **Txingak (25 kilo. 50 kilokoekin aritzeko esne-zopa gehiago hartu beharra dago!)**

*Presentación de las cuadrillas e inicio de los juegos en la plaza San Martín. Puede tomar parte todo aquél que quiera, y que tenga entre 16 y 102 años. Se realizarán los siguientes juegos:*

- *Captura del cerdo*
- *Carrera de burros (los de 4 patas los traerán los organizadores, y los de 2 serán a cargo de las cuadrillas)*
- *Sokatira*
- *Carrera de sacos*
- *Txingas (de solo 25 kilos, que para los de 50 ¡hay que comer más!)*



**Sagarroi taldea**

**12:30** **KONTZERTU MEXIKARRA Espoloian, Mariachi Garibaldi taldearekin.**

*CONCIERTO MEXICANO en el Espolón, con el grupo Mariachi Garibaldi.*

**14:30** **HERRI BAZKARIA: paella erraldoia. Lo-kuluxkarako garaian Incansables txarangakoek, eta Xafre eta Zarra eta Iosu eta Iokin trikitilariek lo ez hartzeko kantak joko dituzte. Txartelak salgai 8 tan Kortazar, Pol-Pol eta San Joxepe elkartean.**

**Bazkal ostean, EUSKAL KANTUEN saioa.**

*COMIDA POPULAR: paella gigante. Pero no habrá tiempo para siesta: habrá música y ambiente con la charanga Incansables, y con los trikitilaris Xafre eta Zarra y Iosu eta Iokin. Tickets a la venta en Kortazar, Pol-Pol y Sociedad San Joxepe por 8 .*

*Tras la comida, CANCIONERO POPULAR VASCO para todos.*

**17:00** **JOKOAK berriro, bergararrak sasoian gaudela erakusteko, musikaz lagunduta.**

*JUEGOS varios para demostrar que estamos en forma, amenizados por la música.*

**18:30** **PAZKOAK 2005 MISS ETA MISTER JATOR LEHIAKETA. Saria: 150 ko erosketa txartel bana Bedelkarreko dendetan gastatzeko.**

*CONCURSO DE MISS Y MISTER JATORRA DE PASCUAS 2005. Premios: un bono de compra de 150 para cada uno para gastar en las tiendas de Bedelkar.*

**19:00** **Koadrila irabazleari SARI-BANATZEA. Saria: asteburu bateko egonaldia Nafarroako nekazaritza-turismoko etxe batean.**

*REPARTO DE PREMIOS a la cuadrilla ganadora. El premio consistirá en una estancia de un fin de semana en una casa rural de Navarra.*

Nueva Alaska taldea.




**19:00** "BERGARA HIRIA" pilota-txapelketako finalak Bergarako Udal pilotalekuan.

*Finales del CAMPEONATO DE PELOTA "VILLA DE BERGARA", en el frontón municipal de Bergara.*

**19:30** KALEJIRA Xafre eta Zarra eta Iosu eta Iokin trikitilariekin. Nekatzen direnean Incansables txarangakoek hartuko diete erreleboa, hauek ez dira nekatzen-eta.

*PASACALLE con los trikitilaris Xafre eta Zarra y Iosu eta Iokin, y la charanga Incansables.*

**22:30** KONTZERTUA Bideberrin ***Sagarroi, Holy Sheep, Aby Kem*** eta ***Skunk*** taldeekin.

*CONCIERTO en Bideberri: Sagarroi, Holy Sheep, Aby Kem y Skunk.*

**23:00** ERROMERIA San Martin plazan TAPIA ETA LETURIA taldearekin eta Iokin Otamendi dantzariarekin.

*Romeria en la plaza San Martín con el grupo TAPIA ETA LETURIA y el dantzari Iokin Otamendi.*

**23:00** CAMP DANTZALDIA Espoloian, Nueva Alaska taldearekin.
*BAILE CAMP en el Espolón, con el grupo Nueva Alaska.*

## Maiatzak 17, asteartea

# UMEEN EGUNA



Txu-txu trenean ez ezik, saltoka ibiltzeko aukera ere izango da umeen egunean.



**08:00 SOKAMUTURRA San Martin plazan eta Barrenkalen, Elgoibarko dultzaineroen eta Incansables txarangaren animazioarekin.**

*SOKAMUTURRA en la plaza San Martín y en Barrenkale, amenizada por los gaiteros de Elgoibar y la charanga Incansables.*

**11:00 - 14:00**
**Pentekosteetako kartel-lehiaketara aurkeztutako KARTELAK ERAKUSGAI izango dira, Udaletxeko arkupeetan.**

*EXPOSICIÓN DE LOS CARTELES presentados al concurso de carteles de las fiestas, en los arcos del Ayuntamiento.*

**11:30 - 13:30**
**HERRI-TRENAREKIN txango turistikoa egiteko aukera. Irteera guztiak Fraiskozuri plazatik egingo dira.**

*Recorrido turístico en el TREN LOCAL. Todas las salidas serán desde Fraiskozuri.*

**11:30 - 13:30**
**HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan. Gaztelu puzgarriak, kars-ak,... izango dira.**

*PARQUE INFANTIL en el patio de Ipintza II. Castillos hinchables, kars...*

**12:30** **HERRI KIROLEN ERAKUSTALDIA San Martin plazan. Ernesto Ezpeleta "Bihurri", Jose Inazio Flores, Juan Joxe Unanue "Goenatxo II.a" eta Ana Berasategi. Aizkoran, harri jasotzen, txinga eramaten, trontzan, lastoa altxatzen... arituko dira. Aurkezle-lanak Gabixolak egingo ditu.**

*DEMOSTRACIÓN DE DEPORTE RURAL en la plaza San Martín. Ernesto Ezpeleta "Bihurri", Jose Inazio Flores, Juan Joxe Unanue "Goenatxo II." y Ana Berasategi. Gabixola presentará a los aizkolaris, levantadores de piedra, trontzalaris, txingalaris, lanzadores de paja.*

**Herri kirolariek beren indarra erakutsiko dute modu batean zein bestean.**




**16:00** **SAKArekin umeentzako jolasak San Martin plazan. Poniak, zezentxoak...**

*Juegos infantiles en la Plaza San Martín con SAKA: ponys, vaquillas...*

**17:00** **PILOTA-PARTIDA PROFESIONALAK Bergarako Udal-pilotalekuan.**

*PARTIDOS DE PELOTA PROFESIONALES en el frontón municipal de Bergara.*



17:00 – 20:00

**HERRI-TRENAREKIN** txango turistikoa egiteko aukera. Irteera guztiak Fraiskozuri plazatik egingo dira.

*Recorrido turístico por el municipio con el TREN LOCAL, con salida en Fraiskozuri.*




**Betizukoak, telebistatik Bergarara.**

17:00 – 20:00

**HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA** Ipintza II-ko patioan. Jolas-parkea ixterakoan, Incansables txarangaren laguntzarekin, **DENOK SAN MARTIN PLAZARA KALEJIRAN!!!** Han...

*PARQUEL INFANTIL, en el patio de Ipintza II. Al cierre, con la charanga Incansables, todos en pasacalle a la plaza San Martín, y allí...*

20:15 **GAZTETXOENTZAKO KONTZERTUA BETIZU** taldearekin San Martin plazan. Mugitu eskeleto hori!

*CONCIERTO PARA LOS JÓVENES con el grupo BETIZU en la plaza San Martín. ¡A mover el esqueleto!*

21:30 – 24:00

**EUSKAL KARAOKE ETA DJ FESTA** San Martin plazan, Txatxilipurdi taldearen eskutik.

*KARAOKE EUSKALDUN Y FIESTA DJ en la plaza San Martín, de la mano del grupo Txatxilipurdi.*

24:00 **BITORIANATXOREN IGOERA eta AGURRA**, eta Pentekoste jaien amaiera San Martin plazan Incansables txarangarekin.

*SUBIDA DE BITORIANATXO Y DESPEDIDA. Final de las fiestas de Pentecostés en la plaza San Martín con la charanga Incansables.*

# Maiatzak 21, larunbata

**11:00** **ATLETISMO FROGA KONBINATUAK, Agorrosingo Atletismoko pistetan.**
*Pruebas atléticas combinadas, en las pistas de atletismo de Agorrosín.*

**12:00** **XX. Koldo Eleizalde literatura lehiaketako SARI BANAKETA Zabalotegi aretoan.**
*REPARTO DE PREMIOS del XX. concurso de literatura Koldo Eleizalde.*

**16:00** **Bergara Hiria xakeko adiskidetasun Kluben zirkuitua, Ipintza II institutuan.**
*Circuito de partidas rápidas de ajedrez por equipos: circuito del club de la amistad, en el Instituto Ipintza II.*





# Maiatzak 22, igandea

**XXXII. HAURREN EGUNA, Bergarako Xamatz dantza taldeak antolatuta, Abarka dantza elkartearen laguntzarekin.**

*XXXII. FIESTA VASCA INFANTIL, organizado por el grupo de danza Xamatz, con la colaboración del grupo de danzas Abarka.*












Erantzun zuzena




# Bergara 2005: hiru urtemuga handi

**Eladio Urdangarin**

**Julian Gimon**

**Fausto Elhuyar**

**2005. urtean** bergarako 2 seme famatuak betetzen dute urteurrena: Eladio Urdangarin, 75 urte hil zela, eta Julian Gimon, 25 urte hil zela. Bestalde, nahiz eta Bergarako semea ez izan, Fausto Elhuyar famatua jaio zela 250 urte betetzen dira, eta hona ekartzen dugu egin zuenarekin Bergarari eman zion ospeagatik.

**El año 2005**, se cumple el aniversario de dos ilustres hijos de Bergara: 75 años de la muerte de Eladio Urdangarín y 25 de Julián Gimón. Por otra parte, y aún no siendo hijo de Bergara, por la gran importancia que su descubrimiento supuso para la comunidad científica y con ello dando a conocer el nombre de Bergara, es por lo que traemos aquí el 250 aniversario del nacimiento de Fausto de Elhuyar.



## Urdangarin Irizar, Eladio (1860-1930)

Laureaga dorretxeko oinordekoa. 1860ko urriaren 5ean jaio zen Bergaran. Anita Irizarrekin ezkondu zen, eta alargun gelditu ondoren, beste alargun batekin: Maria Urkizu Zurbanorekin.

Eladio Urdangarin abokatu ezaguna eta Granadako Auzitegiko burua izan zen, bai eta Bilbokoa ere. Auzitegi horretan eszedentzia hartu zuen kargu handiago batean jarduteko. Bilboko Abokatuen Elkargoan omenaldia egin zioten euren begirunea eta miresmena adierazteko.

1918. urtean Auzitegi Goreneko fiskalburu ordea eta Maroko eta kolonietako Batzordeko agregatua zen. Erlijio-uste sendoko gizona zen eta bihotz-bihotzean zuen bere jaioterria. Edonon zegoela ere, urtero itzultzen zen Bergarara Aste Santuko prozesioetan parte hartzeko. Oxirondoko Santa Marina parrokiako kabildoak gidari-makila (gixoia) gordetzen zion "aste santuko kale birak" gidatzeko. Horixe izan zen Oxirondoko Santa Marinako eliztarrekin izan zuen konpromiso sakratuetako bat.

1930eko maiatzaren 12an hil zen Bergaran.

## Urdangarin e Irizar, Eladio de (1860-1930)

Sucesor de la Casa-Torre de Laureaga, nació en Bergara el 5 de octubre de 1860. Se casó en primeras nupcias con su prima Anita Irizar. Enviudado, casó a su vez, con la también viuda, María de Urkizu y Zurbano.

Eladio Urdangarin, destacado letrado, fue Presidente de la Audiencia de Granada, así como de la de Bilbao. Al darse su excedencia aquí, para ocupar un cargo de mayor rango, el Colegio de Abogados de Bilbao, le ofreció un homenaje de respeto y consideración.

El año de 1918, Urdangarín, era Teniente Fiscal del Tribunal Supremo y Agregado de la Junta de Marruecos y Colonias. Hombre de arraigadas convicciones religiosas y amante de su pueblo natal, acudía todos los años, fuese donde estuviera, a participar en las procesiones de Semana Santa en Bergara. El cabildo parroquial de Santa Marina de Oxirondo, le reservaba el gidari-makila (Gixoia), con la que dirigía los Aste-Santuko kale birak (procesiones de Semana Santa). Fue uno de los compromisos sagrados de su vida con los feligreses de Santa Marina de Oxirondo.

Falleció en Bergara el 12 de Mayo de 1930.



## Gimon Rezola, Jose Julian (1898-1980)

Bergaran jaio zen 1898an. Barneko ikaslea izan zen Valladoliden eta Basurton. 1919an, lizentziaturako aparteko saria eman zioten Valladoliden; gero, Alemania eta Austriara joan zen ikasketak osatzera. 1927an doktore-tesia aurkeztu zuen Madrilen. Zirujau jardun zuen Eibarren, eta oposizio-azterketa bikainak egin ondoren, Basurtoko ospitalean laguntzaile hasi zen 1927an; gerora ospitaleko buru izan zen. 1936 eta 1937an, kirurgiako irakasle izan zen Bilboko Medikuntza Fakultatean.

Julian Gimon jaunak ez zion inoiz inori gorroto edo ezinikusirik izan; aitzitik, maitasuna eta adiskidetasuna izan zituen ezaugarri nagusiak. Hala ere, grina doilorren zartadak eta gerra zibilak eragindako atsekabeak ezagutu zituen, agintari frankistek heriotza-zigorra ezarri baitzioten. Hainbat urte eman zituen Dueso eta San Fernandoko (Cadiz) espetxeetan, "bekatu barkaezina" egiteagatik: liberala zen eta ez zuen ezkutatzen. Baina espetxeko erregimenaren atsekabe mingotsak jasan behar izan zituen arren, ez zuen inoiz galdu berezkoa zuen espiritu bikaina, hurkoari zion maitasun handia. Horrelakoxea zen Gimon: euskal haritz sendoa, euskalduna barne-muinetaraino eta liberal peto-petoa. Handik urte

## Gimón y Rezola, José Julián (1898-1980)

Nació en Bergara en 1898. Alumno interno en Valladolid y Basurto. Premio extraordinario de la Licenciatura en Valladolid, en 1919, que amplió sus estudios en Alemania y Austria. Presenta su tésis doctoral en Madrid en 1927. Fue cirujano en Eibar y mediante oposiciones muy brillantes, ayudante del hospital de Basurto en 1927, siendo nombrado, posteriormente Jefe del mismo. Profesor de Cirugía de la Facultad de Medicina de Bilbao en 1936 y 1937.

Don Julián Guimón nunca sintió odios ni rencores, sino amor y amistades. Sin embargo, conoció los desgarros de pasiones innobles, esas turbiedades nacidas en el vendaval de la Guerra Civil que llegaron a condenarle con la pena capital las autoridades franquistas, con varios años de reclusión en el Penal del Dueso, y en la de San Fernando (Cádiz). Cometió un pecado «imperdonable»: ser y no ocultar que era liberal. Pero aún bajo el régimen carcelario y las consabidas amarguras, siempre tuvo ese espíritu gigantesco, con ese amor que impera

batzuetara indultua lortu zuen, espetxeko komunitateari emandako zerbitzuak saritzeko, nonbait. Bere frantziskotartasun zientifikoa espetxetako preso eta inguruko jende askorengana iritsi zen, entzute handiko zirujaua zela jakinik, Gimonengana jotzen baitzuten askok, espetxeko zuzendaritzaren baimenaz, azter zitzan. Gimonek ez zion inoiz inori ezezkorik esan.

Jarraian gertatu zena ederki ezagutzen dugu denok. Bilbora itzuli eta hutsetik abiatu behar izan zuenetik hasi eta, eginahalak egin ondoren, Medikuntza eta Kirurgiako Erietxe bikaina sortzea lortu zuen arte. Hantxe geratu ziren Gimonen oroitzapen kutunak, argi-ilunak, ametsak eta poztasunak, eta beti nagusi izan zuen zuzentasuna. Medikuntzari emana bizi izan zen, oso zintzo jokatuz betiere. Gimonen ezaugarri guztiak gogora ekartzen ari garela, bere ahots geldi gozoaren oihartzuna datorkigu berriro, eta bere buru argiaren lekuko dugun kultur ondare izugarria, hau da, hitzaldi, argitalpen, artikulu eta liburu ugariak. Lanotan medikuntza eta kirurgiaren alor zabalaren inguruko ikerketak eta bizipenak uztartu zituen.

Kargu ugari izan zituen lanbidean, baina hauek nabarmenduko ditugu: Bizkaiko Zientzia Medikoen Akademiako lehendakari izendatu zuten, boto bidez, baina Riestra gobernadorearen agintaldian, berriro kargurako aukeratu zuten

frente al prójimo, la condición del que domina frente al que sufre. En efecto eso era: un recio roble euskaldún, euskaldún hasta los tuétanos, auténticamente liberal. Años más tarde fue indultado. Se dice que como recompensa por sus servicios bien expresivos en beneficio de la comunidad penitenciaria. Y su franciscanismo científico, llegó aún a más contables moradores de las citadas poblaciones, ya que en muchisimos casos -al tener conocimiento de que tenían en la vecindad como «huesped» a un doctor cirujano de bien asentada reputación- llamaban a la puerta de la celda, bajo los auspicios de la dirección, en solicitud de ser vistos y atendidos por el galeno, y que él, jamás negó nada a nadie.

Lo que sucedió después lo sabemos todos. De regreso a la capital bilbaína, empezando de cero en este áspero camino, con ayudas y sudores, logró levantar ese magnífico Sanatorio Médico Quirúrgico, cuyas paredes quedarán horadadas de recuerdos más queridos, de luces y de sombras, de ensueños y satisfacciones, pero siempre con la conciencia en paz, como tributo a la ciencia médica, con la rúbrica de su honestidad profesional. Justo es reconocer todo este orden de cosas, pero en la memoria vuelve a resonar su voz pausada, dulce; su

arren, Gimonen izendapena bertan behera gelditu zen; Medikuntza Fakultateko Akademiko aukeratu zuten Bilborako; Euskal Unibertsitatea sortzeko batzordeko kide nabarmena izan zen, halaber, Jon Arrospide, Joan Viar eta Justo Garate lagun min eta mediku handiekin batera.

claridad mental e intelectual, desarrollando su enorme bagaje cultural, en conferencias y en sus publicaciones, artículos y libros, con estudios y experiencias en ese amplísimo campo clínico-médico-cirujano.

Entre los cargos de orden profesional que desempeñó en vida, citaremos los siguientes: Presidente de la Academia de Ciencias Médicas de Bizkaia, elegido por el voto popular, aunque es de justicia recordar que, durante el mandato del gobernador Sr. Riestra, fue anulado su nombramiento cuando en dicha época fue designado para este mismo cargo. Académico electo de la Real Facultad de Medicina del distrito de Bilbao. En 1951 forma parte del grupo de médicos que funda el Igualatorio Médico Quirúrgico, presidiendo esta institución hasta el año 1957. Organizador y presidente de la Comisión para el estudio del Alcoholismo en Bizkaia (1966-1971). Volvió a presidir la Academia Médica vizcaína de 1967 a 1969. Miembro destacado en la creación de la Universidad Vasca, en íntima colaboración con sus entrañables amigos y eminentes médicos Jon Arrospide, Juan Viar y Justo Garate.





## Elhuyar y Lubice, Fausto Fermín (1755-1833)

Mineralogista eta kimikari espainiar hau Logroñon jaio zen 1755eko urriaren 11n, eta Madrilen hil 1833ko otsailaren 6an. Meategi-zuzendari izan Espainian eta Amerikan.

Aita frantziar jatorriko zirujau ospetsua zen, hainbat urtez Logroñoko ospitaleko mediku izan zena. Aita kimika zalea zen eta pattarra ateratzeko ardoak distilatu zituen lehenengoa izan zen Logroñon: 20 alanbiketik gora izan zituen distilaziorako. Familiko zaletasun horrek izan zuen eraginik Faustogan, eta kimika ikasi zuen Parisen, 1772 eta 1777 bitartean, Hilaire-Marin Rouelle maisuarekin. Real Sociedad Vascongada elkarteak Bergaran kimika-, metalurgia- eta mineralogia-katedrak ezartzea erabaki zuenean, kimikako katedra Joseph Louis Proust-ek hartu zuen, eta gero François Chabaneau-k, biak ere Rouelle maisuaren ikasle izandakoak, eta Elhuyar-ek mineralogiakoa hartu zuen. 1778an izendatu zuten katedrarako, baina ez zuen 1781 arte hartu, Abraham Werner-ekin hiru urtez Freiberg-en ikasi ondoren. Han Thaddeus von Nordenflicht adiskide egin zuen (Elhuyarrek gero Perura meategietara abiatu zen misio bateko buru izateko gomendatu zuena), bai eta Ignaz von Born ere, Vienan.

## Elhuyar y Lubice, Fausto Fermín de (1755-1833)

Mineralogista y químico español, director de minas en España y América, nacido en Logroño, el 11 de octubre en 1755 y fallecido en Madrid, el 6 de febrero de 1833.

Hijo de un eminente cirujano de origen francés que durante años fue médico del hospital de la ciudad. Su padre, aficionado a la química, fue el primero que destiló vinos en Logroño para la obtención de aguardiente, llegando a tener más de 20 alambiques destinados a la destilación en La Rioja. El ambiente familiar influyó en Fausto, que estudió química primero en París, desde 1772 a 1777, con Hilaire-Marin Rouelle. Cuando la Real Sociedad Vascongada decidió establecer cátedras de química, metalurgia y mineralogía en Bergara, la primera cátedra fue ocupada por Joseph Louis Proust y luego por François Chabaneau, ambos discípulos de Rouelle, mientras que Elhuyar se preparaba para ejercer la de mineralogía. Designado para la cátedra en 1778, no la ocupó hasta 1781, después de tres años de estudio con Abraham Werner en Freiberg. Allí trabó amistad con Thaddeus von Nordenflicht, cuyo nombramiento al frente de una misión minera en Perú recomendó más tarde, conociendo también en Viena a Ignaz von Born.

1782ko urtarrilean Elhuyar-ek bere gain hartu zuen mineralogiako irakaskuntza Metalurgiako Errege Eskolan (hurrengo urtean, Bergarako Seminario Patriótico-ak bereganatu zuen), baina 1785ean utzi zuen kargua, ikasleen interes eskasa zela-eta. Garai hartan, anaia Juan Joseri lagundu zion hark egiten zituen esperimentuekin, eta tungstenoa (Wolframioa) isolatzea lortu zuten. Ezagutzen diren datuen arabera, platinoa xaflagarri egiteko metodo praktikoa aurkitzeko ikerketetan eskuhartze garrantzitsua izan zuen, garai hartako mena klasikoa zela-eta, platina perutarra, sortzen zitzaizkion zikinkeriak kenduz; halere, Chabaneau-k eraman zituen aurkikuntza haren; laudorioak. Ikerketa haiek egiten ari zela, Carl von Sickengen-en lana kritikatu zuen, esanez "entseguen betekada izugarria" zela. 1785ean, Born-ek zilarra amalgamatzeko metodo berri bat azaldu zuen, eta Elhuyar bigarren aldiz joan zen Alemaniara, 1786ko otsailean, berrikuntza hura aztertzeko asmoz, eta berarekin eraman zuen Andrés Manuel del Rio gaztea. Freiberg-en amalgamazioari buruzko esperimentuak egin zituen (1787-1788), eta haien emaitzak Espainian nahiz Alemanian argitaratu ziren «Disertaciones metalúrgicas» izeneko serie batean. Elhuyarren amalgamazioaren teoriak (proposamenetako bat zen berea) honakoa zioen: «mineral xigortuak ehotzean merkurioak hartzen du azidoek disolbatutakoa, eta sortutako gatzak deskonposatzen ditu afinitate bikoitzaren bidez, azidoan disolbatutako metal batetik, beste metal batera». Beste esperimentu batzuetan azido kloroargentikoa dekribitu zuen, eta argiak azido horretan zituen ondorioak.

Elhuyar se hizo cargo de la enseñanza de la mineralogía en enero de 1782 en la Real escuela Metalúrgica —absorbida el año siguiente por el Seminario Patriótico de Vergara—, pero dimitió del cargo en 1785 debido al escaso interés de los estudiantes. Durante este periodo, ayudó a su hermano Juan José en los experimentos que condujeron al aislamiento del tungsteno (Wolframio); según las referencias que se conocen, tomó parte muy importante en las investigaciones que llevaron al descubrimiento de un método práctico destinado a hacer maleable el platino, eliminando las impurezas que lo acompañaban en su mena clásica de entonces, la platina peruana; sin embargo, sería Chabaneau a quien sería atribuida la gloria del descubrimiento; en el curso de estos estudios criticó la investigación de Carl von Sickengen como «un indigesto terrible de ensayos». En 1785, Born anunció un nuevo método de amalgamación de la plata y Elhuyar partió hacia una segunda misión en Alemania en febrero de 1786, con el fin de estudiar la innovación, llevando con él al joven Andrés Manuel del Río. De nuevo en Freiberg, realizó experiencias sobre la amalgamación (1787-1788), cuyos resultados se publicaron en España y Alemania en una serie de «Disertaciones metalúrgicas». La teoría de la amalgamación de Elhuyar, una de las varias propuestas, estimaba que «en la trituración de los minerales tostados el mercurio se apoderaba de la porción disuelta por los ácidos, descomponiendo las sales formadas por vía de dobles afinidades, como ocurre en toda precipitación de metal disuelto en un ácido, por otro metal»; en otra serie de experiencias, describió el ácido cloroargéntico y los efectos de la luz sobre él.

1786an, Meatzaritza Taldeko Zuzendari Nagusi izendatu zuten Elhuyar Nueva España-n, Mexikon. Talde hartan bere lehen ahalegina Born-en amalgamazio-metodoaren efikazia egiaztatzea izan zen. Orduan ikusi zuen metodo hori bat zetorrela esentzian Alvaro Alonso Barba-k Metalen Artea III liburuan deskribatzen zuen «berotan egindako amalgamazioarekin», baina testuinguru alkimikoa apur bat arindu-ta. 1790-1791 artean Sombrerete eta Guanajuato-n eginiko esperimentuen ondoren, Elhuyar-ek eta Frederick Sonneschmidt-ek, berak errekrutatutako mineralogista alemanak, ikusi zuten, hain justu, patio-prozesua egokiagoa zela Mexikon zilarra produzitzeko, eskulanaren kostu baxua kontuan hartuta. Elhuyar Europako teknika berri batzuk aplikatzen saiatu zen, esaterako, hungariar tipoko ponpa hidraulikoak meategiak drainatzeko, baina, oro har, berrikuntza teknologikoaren bidez meategietako produkzioa hobetzeko egindako saiakerek ez zuten arrakasta handirik izan. Beraz, Elhuyar-ek eta y Sonneschmidt-ek eman zuten laguntzarik onena izan zen azoguero-ei, patio-prozesua zuzentzen zutenei, prozesuan gertatzen ziren erreakzio kimikoak ulertaraztea. Elhuyar-ek xehetasun guztiz konfirmatu zuen mena mota ezberdinak ezberdin tratatu behar zirela, kontuan hartuta zilarra beste sustantzia askorekin konbinatuta egoten dela.

Elhuyar-en lorpen garrantzitsuena Meatzaritzako Errege Mintegia sortzea izan zen. 1792an sortu zuen, Freiberge-eko Meatzaritza Eskolaren arabera egituratuta. Mintegian ezarri zuen ikasketa-plana modernoa zen nabarmen, eta garrantzia handia ematen zion matematika, kimika eta fisika esperimentalean prestaketa zientifiko sendoa izateari. Joseph Sigaud de Lafond-en fisikari buruzko testua goitik behera errebisatu zuen, oinarrizko esperimentazioan erabiltzeko instrumentuen zerrenda osatzeko: Londresera enkargatu zituzten instrumentu haietako batzuk eta beste batzuk Alexander von Humboldt-en bidez lortu zituzten. Oinarrizko aparatuen 50 joko ere enkargatu zituen, ikasle bakoitzak bana izan zezan, bai eta Benito Bails-en Matematika Bildumaren aleak ere, oinarrizko matematiken kurtsorako.

Horrez gain, mineralogiako eta metalurgiako arazoei buruzko tratatu praktikoak eta deskriptiboak idazten jarraitu zuen. Besteak beste, Joaquín de Zarauz-ek, Errege Armadako ontzi-kapitainak, 1805eko azaroaren 8an Diario de Mexikoko gehigarriaren kontra egindako errebindikazioari eman zion erantzuna, 1807an argitaratu zena. Ez zen inoiz gustura sentitu kreolekin, eta Madrilera itzuli zen 1821ean. Han, meategietako zuzendari nagusi lanetan aritu zen 1822ko abuztuaren 5etik. Urte bereko irailaren 14an, Almadén, Guadalcanal eta Riotintoko meategiei buruzko txostenak egitea eskatu zioten. Bi urte gero, 1824ko apirilaren 6an, 1825eko Meatzaritza Legea sortu zuen Erresumako Aberastasunaren Sustapen Batzordeko Kide izendatu zuten.

***Koldo Pereira***

En 1786, Elhuyar fue nombrado director general del Cuerpo de Minería en Nueva España. Sus primeros esfuerzos en México se encaminaron a determinar la eficacia del método de amalgamiento de Born. Elhuyar comprobó que este método coincidía esencialmente con la «amalgamación en caliente» descrita por Alvaro Alonso Barba en el libro III del Arte de los metales, aunque aligerado de su contexto alquímico. En experiencias realizadas en Sombrerete y Guanajuato en 1790-1791, Elhuyar y Frederick Sonneschmidt, mineralogista alemán por él reclutado, determinaron que de hecho el proceso de patio era más adecuado para la producción de plata en México, teniendo en cuenta el bajo costo de la mano de obra. Elhuyar trató de aplicar algunas nuevas técnicas europeas, tales como las bombas hidráulicas de tipo húngaro para el drenaje de las minas, pero en general sus esfuerzos para mejorar la producción minera por medio de la innovación tecnológica no alcanzaron el éxito. La mejor ayuda que Elhuyar y Sonneschmidt lograron prestar fue educar a los azogueros, que dirigían el proceso de patio, a comprender las reacciones químicas que tenían lugar durante el proceso. Elhuyar confirmó con detalle que los diferentes tipos de menas deberían tratarse de formas distintas, considerando que la plata se encuentra en combinación con muchas sustancias.

El mayor logro de Elhuyar fue la creación del Real Seminario de Minería, fundado en 1792 y estructurado de acuerdo con la Escuela de Minería de Freiberg. El plan de estudios que estableció para la escuela era explícitamente moderno, dando importancia a una sólida preparación científica en matemáticas, química y física experimental. Revisó cuidadosamente el texto de física de Joseph Sigaud de Lafond para confeccionar una lista de los instrumentos necesarios en experimentación elemental: dichos instrumentos fueron encargados a Londres y otros se obtuvieron a través de Alexander von Humboldt. Encargó también cincuenta juegos de los aparatos básicos, de forma que cada alumno dispusiera de uno, y ejemplares del Compendio de matemáticas, de Benito Bails para el curso de matemáticas elementales.

Continuó escribiendo tratados prácticos y descriptivos relativos a problemas de mineralogía y metalurgia. Entre ellos Contestación a la vindicación y respuesta que el capitán de navío de la real armada don Joaquín de Zarauz dio al suplemento del Diario de México del viernes 8 de noviembre de 1805, aparecido en México en 1807. Nunca llegó a familiarizarse con la sociedad criolla y volvió a Madrid en 1821, donde actuó como director general de minas a partir del 5 de agosto de 1822. El 14 septiembre del mismo año se le pide informe sobre las minas de Almadén, Guadalcanal y Riotinto. Dos años después, el 6 de abril de 1824 es nombrado individuo de la Junta de Fomento de la riqueza del Reino, a la que se debe la Ley de Minería de 1825.

**Koldo Pereira**





BERGARAKO UDALA

**Bergarako Udalak**
**jai zoriontsuak opa dizkizue**

**El Ayuntamiento de Bergara**
**os desea felices fiestas**